

Utziozu putz bati zure burua xaboi burbuila bateraino eramaten. Bota pertsonak eta pertsonatxoak burbuila horretan, beren arima, gorputz, gogo eta begirada eta guzti. Bultzatu barrutik lantegi zahar baterantz, eta hunkitu makina hilak eta bazter ugertuak, ahal denik eta edertasunik zolienaz. Azkenik, urratu burbuila aizto berdeaz, munduan biluzik jausi arte.

*Manifestu Alkimistaren I. maila:
Oihuak eta Xuxurlak Sarerik gabeko
Antzerki baten alde*

Kale antzerkiaren kodeak. Irizpideak eta parametroak, sormenaren ikuspuntutik.

Alkimia 130 teatroabierto* konpainiaren 14 urteko ibilbideko esperientziatik, konpainiaren sortzaileetako bat eta arte zuzendaria eta aktorea naizen aldetik, kale antzerkian erabil daitekeen kode bat azalduko dut, gure sormen ibilbidearekin lotutako irizpide eta parametro espezifikoekin.

**Alkimia 130 – kalea, adierazpen eta arte tresna gisa. Kanean hasi zen, gizartea indarkeria mota guztiekin lotutako gaiekiko sentikor bihurtzeko, oro har. Herri jaietako daten barruan eta kanpo erabiltzeko topalekutzat hartzen du kalea, eta gizarte, arte eta kultur sentsibilizaziorako gunetzat. Zuzeneko komunikazio bide sentibera eta poetikotzat hartzen du antzerkia.*

Hitzaurre gisa

Kode espezifikorik du kale antzerkiak? Kode etikorik, estetikorik, artistikorik, legalik...? Kolektibo edo konpainia bakoitzak bere kodea du, eta horrek zehaztuko du haren sortzeko eta kontatzeko modua, beste konpainia batzuek erabilitakoekin inongo zerikusirik ez duten irizpide eta parametro bereziekin. Gaur egun, kaleetako amildegi irekira irteten diren konpainia adina kode daude.

Nire ustez, kaleak berak du bere kodea, eta konpainiok, iristen garenean, onartu edo alde batera uzten dugu, edo, nolakoa den ere, aurrera jarraitzen dugu. Baina kalearen kodea ez da aldatzen, eta gu, iristen garenean, moldatu egiten gara, gure istorioa kontatzeko.

Eta nolakoa da XXI. mendeko kalea? Nolakoa da hirietako kalea, probintzia txikitakoa, Gaztelakoa, Euskadikoa, Extremadurakoa, auzoetakoa, hirigunekoa, egunekoa, gauekoa? Gaur egungo kalean bertako biztanleek, gizarte errealitateak, arkitekturak, ekonomiak eta kulturak dute eragina. Aniztasuna ia ezin hartuzkoa da. Aniztasunera jauzi baino lehen, lerro artean bilatzen ditut alderdi komunak, eta nire kodea idazten dut, ontzi alkimistan lortutako esperientzian oinarrituta.

SORMENA. Sortzeko ekintza: ezerezetik zerbait egitea

Ezerezetik zerbait egitea, norberak kale antzerkiaz duen kontzeptuan oinarrituta, kale antzerkitik erakartzen zaituzten ezaugarrietan oinarrituta. Ezaugarri horien artean kokatu eta, zure istorio bat munduari kontatzerakoan, zure sormen, giza eta gizarte egia bilatzen hasten zara.

Lehenik eta behin, **kalea** aukeratzen duzu, eta ez beste gune bat (kalea aukera da, ez posibilitatea). Konpainiak kalean aritzeko motibazio handia du. Balio ideologiko batek bultzatzen gaitu. **Libertarioa delako erakartzen zaitu kaleak**, ia mugarik ez duelako. Izan ere, behin hasita, kaleak erakusten dizkizu mugak: kontrolatu ezineko tenperatura, bertan bizi diren jendeen erritmoak, hura betetzen duten istorioak (behin jazoera gertatuta bertatik inoiz ere joango ez direnak, bertan bizi diren pertsonen oroimen kolektibo historikoan eta emoziozkoan daudelako), gune naturalak sortzen dituen joko plastikoen edertasuna, zeruaren kolore bat, horma zuri handi bateko itzal bihurria, eraikin bateko leiho argiztatuak, ustekabeaz azaltzen den publikoa, muntaketa egunean ezagutu zenituen pertsonen begi keinuak.

Iritsi eta **errealitate batera moldatzen zara**. Egun batean edo batzuetan, zure bizi espazioa da kalea. Dena berria da, dena erronka, beti soineko berria janzten. Sortzen duen pertsonarentzat, pozoia da. Lan egiteko tokia lehen aldiz ikusteko unea erronka da. Ikuskizuna sortzeko prozesua amaitu egin da; kalean, beste sormen mota bat hasten da: moldaera. Jolas baten modukoa da: ikuskizunaren zatiren bat aberasteko aukerak, aurre egin beharreko zailtasunak, aktoreei ahalik eta kontzentrazio handiena izateko eta indar eta kontrol berari eusteko etengabe eskatzea... Esku artean darabilzun jostailua da, haur bihurtzen zara berriro.

Gero, **muntaketa egunean**, giro jakin bat egongo da, usain jakin bat, hitz egiteko eta jokatzeko modu jakin bat duen jende mota bat, kale erritmo jakin bat, bizitza jakin bat, hiriaren bihozkada. Oro har, erdigunetik hurbil egiten dugu lan, herrien bihotzean, herriei buruz informazio handia ematen duten lekuetan. Egunero, leku bakoitzeko giza mapa bat eramaten duzu etxera. Zenbaitetan, oso leku itsusietan kokatzen zaituzte, izugarri itsusiak diren lekuetan. Orduan, lekua edertzeko erronkari heldu behar diozu, eta lekua zure lanarekin energiaren bete behar duzu. Muntaketa egunean lekuko energia zaintzeak emanaldiaren kalitatearen zati bat bermatzen du.

Ezerezetik sortu zenuen, leku desberdinetara iristeko abenturari heldu nahi diozulako, eta dena antolatzen duzu, **denbora tarte jakin batean magia sor dadin**, komunikazioa egon dadin, bertako denbora eteteko, kontatzen ari zarena entzutea erabaki duten pertsonekin elkarbanatzen duzun espazio irekian burbuila moduko bat sortzeko, eta bien bitartean, bost metrora, beste pertsona batzuk pasieran

daude, edo beren gauzei buruz hizketan, ibilgailuak abiadura bizian igarotzen dira... ehunka egoera gertatzen dira inguruan, eta zu, zure burbuilan. **Burbuila ez apurtzea da magia**, bizitzako une jakin batean zenbait pertsona elkarrekin egotea, ikusizko, soinuizko eta emoziozko estimuluen aurrean.

Norbaiti kale antzerkian zer erronka dudan azaldu beharko banio, begiak ixteko eskatuko nioke, eskuak belarrietan presiorik egin gabe jartzeko eta arnasa hartzeko. **Zaindu egin nahi ditut ikusleak**, besarkatu nahi ditut, ohean estalkiaz tapatu eta belarrira istorio bat kontatu, lasaitzea eta zaindu egingo dudala sinistea nahi dut. Nahiz eta ondoan ahotsak eta marmarrak izan, gu, denbora tartetxo batez, denbora eteten saiatuko gara.

Javier Martínek, Valladolideko Kale Arteetako Jaialdiko programatzaileak, behin esan zidan nire ikuskizunak oso babestuta zeudela, eszena gehiago irekitzeko beldur naizela, aktoreak zaindu egiten ditudala. Baliteke, seguru asko, baina, horrez gain, publikoa ere babestu nahi dut; une batez, behintzat, mundutik baztertu nahi dut. Hori da nire ametsa, hori da nire zauria. Txikitan, ekaitzen beldur nintzen, baina,aldi berean, oso gustukoa nuen hurbil egotea, kalean egotea, babesean baina kalean, hezetasuna nabaritzen. Trumoiak eta tximistek ikaratu egiten ninduten. Orduan, aita estu-estu besarkatu eta hezetasunaren freskotasuna eta euriaren usaina sentitzen nituen, bai eta,aldi berean, aitaren besarkadaren segurtasuna ere; luzaro egon nintekeen horrela. Oroitzapen ahaztezina da niretzat, bizitza eten egiten zen. Errealitate irekian egotearen eta,aldi berean, babestuta sentitzearen askatasuna...

Gaur egun, kalea ez da nire haurtzaroan bezala erabiltzen. Auzoko kaleetan hazi nintzen, ezkutaketan eta harrapaketan jolasten. **Uste dut kalea, gaur egun, igarolekua dela**, beste leku batera joateko gunea. Ez da aisia lekua. Gaur egun, ez dugu bizimodua kalean egiten. Aspaldian ez nuen ikusten kalea ezer berezirik edo ezer pragmatikorik ez egiteko okupatzen zela; adibidez, hitz egiteko, jolasteko, jendea pasatzen ikusteko... Sentsazio hori berreskuratzen ari naiz, **biztanleria immigranteari** esker. XXI. mendeko kale gehienak, haiei esker, aniztasun gune bihurtu dira oso urte gutxian. Biztanle berriak dira, bide berri bat aberasten dutenak. Badirudi gure hirietara auzoko bizimodua itzuli dela. Izan ere, pertsona horiek ez dute oraindik parte hartzen gure aisia antolatuan, bai gure hizkuntza ez dakitelako, bai ekonomikoki ezin dutelako. Gainera, pertsona asko bizi dira haien etxeetan, eta beraz, leku gutxi dute. Gainera, haien jatorrizko kulturetan, denbora gehiago igarotzen dute kalean. Gure hirietako kaleetan habia egin duen **publiko berria** da; bizia ematen diote, kolorea ematen diote, eta adi-adi begiratzen diote denari. Agian, ez dute gure eszena proposamenak ulertzeko koderik, baina gure proposamenak kalean gertatzen direnez eta haiek kalean bizi direnez, hurbildu eta begira jartzen dira, jakinguraz, eta horrela egoten dira ikuskizunak irauten duen denbora osoan. Gerta daiteke beren buruari zer ikusten ari diren galdetzea, artista horiek zer egiten ari diren. Ez dute ulertzen, agian, baina

bertan daude. Gaur egungo publikoaren zati bat dira, gainerako pertsonekin batera, haiekin zerikusi handirik ez duten pertsonekin, alegia; izan ere, ez dira pertsona horiekin ile apaindegira, zinemara edo jatetxeetara joaten (gehienez ere, supermerkatuetara edo ikastetxeetako irteerara, seme-alaben bila). Gaur egun, XXI. mendean, topaleku bihurtu da kalea berriro. Iraganera itzultzen ari gara. Zirkuluak ez dio biratzeari uzten.

Ezerezetik, mugarik gabeko gune horretara, kalera, eraman behar den zerbait sortzen da. Kaleari ez diot hiri gune deitzen, landa mundua ez baita kontzeptu horretan sartzen. **Landa munduan**, oraindik ere, topaketarako eta aisiarako lekua da kalea.

Gero ikusten duzu pertsona bakoitzak bere erritmoa duela, bere itxaropenak, bere nahia. Ikuskizuna hasten denean, tarte batez, ondoan nor jarriko zaion zain dago ikuslea, edo dagoen lekutik ikuskizuna eroso ikusiko ote duen aztertzen... Hasierako arreta falta horren energia txarra da kaleak eskaintzen digun lehen platera. Kale ikuskizunen hasiera oso garrantzitsua da, gero kontaktuko duzun guztia ulertuko bada, eta ildo horretan, hau da sortzailearen obsesioa: ikuslearen arreta erakartzea, ahal dela hura harrirituz eta arrastorik eman barik, "hemen eta orain", atsedetik eman gabe, pentsatzeko eta arrazionalizatzeko astirik eman gabe, adi egotera eta, nahiz eta ezer ere ulertu ez, xehetasun guztiei erreparatzera behartuz. Lehenengo eta behin, publikoaren arreta orokor hori lortu behar dugu, eta ondoren, behin hari batez sudur puntatik helduta, arrastoak eta datuak ematen hasteko, ikusle bakoitzak bere istorioa sor dezan. Hasieratik erraza jarri ezean, ikusleen gogoia itxuraz deszifratu ezin den zerbaiterako prestatuko da, haien aldetik arreta eskatuko duen zerbaiterako... Sentsazio horretan har ditzakezu arriskuak: moteltasuna, txikitasuna, xehetasuna, kontaktu delikatuak, isiltasuna... isiltasun elkarbanatuaren katarsia, baterako arnasketa. Batzuetan, une bat baino ez da, baina errituaren orgasmoa da, une komuna, energia elkarbanatua, emoziozko klimaxa, ikusleak eta artistak betetasun eta esker sentsazioarekin uzten dituenak. Une batez, ikusle bakoitzari pertsona multzo baten artetik hegan egiteko aukera eman diogu. Ikusle bakoitza izaki libre eta independente bihurtzen da jendetzaren artean, eta ezagutzen ez dituen eta sentsazio hori bera duten ehunka pertsonarekin gozatzen ari da une horretaz... Une horren bila ateratzen naiz kaleetara antzerkia egitera, magia une galkor horren bila... **Gaur egungo erritualak, XXI. mendeko kale antzerkia**, gizakiok elkarrekin isilik eta bakean eta ezer ere egin gabe egoteko zailtasun handiak ditugun garai honetan, gogoeta egiteko une espiritualak da ia; bake unea da, gure gaur egungo mundu frenetiko honetan.

Eta sortzerako orduan, zure lege txikiak eratzen dituzu

(arauak, irizpideak parametroak, balioak, aukerak... Izenak izen, etika eta egia minimo batzuk dira, sormen bidean eta konpainiak aukeratu beharreko norabide gidatzen zaituztenak), **dakizuna**

eta ez dakizuna jakiteko. (subjektibismo sortzailean eta egindako bidean
oinarrituta)

SORMENERAKO IRIZPIDEAK ETA AUKERAK

(egia jakiteko araua - egoerak aztertu ahal izateko elementu multzoa)

1. Zer kontatu nahi dugu

“Ez dago zauririk gabeko antzerkia”, entzun nion adineko bati.

“Ez dago oihurik gabeko antzerkirik”, pentsatu nuen.

Oihua kalean? Xuxurla.

Guztien oihua? Isiltasun elkarbanatua.

Arteak bizia du, hemen eta orain egiten bada, inguruan duzun munduan. Ez dugu begiak itxita sortu nahi. Antzerkia bozgorailu komunitarioa da, eta gure ustez, gure eskuan dago hura modu kontsekuentean erabiltzea, sortzaileen subjektibotasunetik. Gizarte konpromisoa onartzen dugu eta bizi garen gizarte egoerari erantzukizunez erreparatzea erabaki dugu.

Kaleetara irteteko, istorio bat kontatu behar dugu. Horrenbestez, leihoa ireki eta XXI. mende kapitalista honetako kalea aurkitu genuen, eta kontzeptu hauslea (sinonimoak: esan txarrekoa, bekataria) bilatzeari ekin genion.

Zein dira gaur egun heriozko bekatuak? Baliabide teknologikorik garesti eta konplexuenak erabili eta milaka ikuslerengana iristen den ikuskizun handia maite ez izatea, hari uko ez egitea? Sentikortasuna, txikitasuna eta ikusgarritasunik eza aukeratzea, izugarria ez dena, eta zalapartatsuena eta handiena ez dena aukeratzea?

Gaur egun, Espainian, kontratatzen dizutenen talde teknikoarentzat askoz zailagoa da altzari zaharrak aurkitzea hogeiki foku mugikor aurkitzea baino.

Zer da eguneratuta egotea? Gaur egun, iraultzailea (sinonimoak: probokatzaila, asaldatzailea) izatea dago modan. Multinazional handiek eta hedabideek esaten dute zer dagoen modan: ahalik eta gehiena lortzea, ahal denik eta bizkorren, eta al bait eraginkorren, nahiz eta, horretarako, milaka gizakiren biziaren gainetik pasatu behar izan.

Gure arnasa kaleko tempoa baino motelagoa izatea aukeratu dugu, leku handietan sar daitezkeenak baino pertsona gutxiarengana iritea. Gauza gutxiago eta jende gutxiagorentzat egitea, eta ondo egitea, baldintza guztietan, konpainiarentzat eta publikoarentzat. Ugartasunaren mendean: minimoetatik hasia.

Zein da kaleko txartel leihatila? Nire ustez, iraultzailea da kapitalismoaren garaian zerbait doan ematea, publikoa, trukean txanponik eskatu gabe, zerbaiti balioa ematera behartzea. Trukean ezer eman gabe eman egiten dizute. Eskuzabaltasun ekintza da, eta publikoak kode hori onartzen badu, komunikazioa balio handikoa da. Errespetua eta doakotasunaren balioa publikoarentzako opariak dira. Errespeturako aukera.

Kaleetara irteteko, istorio bat kontatu behar dugu. Eta zer kontatuko dugu? Konpainia osatzen dugunok kaleak, leku bizi horrek, pozo bat duela onartzen dugu, arriskutsua dela, erakargarria dela, zailtasun probokatzaile bat duela, eta batzuetan, frustrazio bat. Publikoarekin gai sakon, gizatiar eta abarri buruzko elkarrizketa sortzea izugarriko erronka da, eta sortzen denean, katartikoa da.

2 Non kontatu, zer espaziotan, zer egoeratan

Kalea aukera bat da, gaur egun, topaketa gertatzeko beharrezkoak diren osagaiez hornitutako gela bat da: denbora doan emateko prest dauden pertsonak. Beste kultur esparru batzuetara joaten ez diren komunitate ikusezinen arteko topaketa, Yohann Floch Circostradako koordinatzaileak Leioako Artekale jardunaldietan adierazten zuenez; hain zuzen, kaleko kultur eraikinak publiko anitzagoa erakartzen duela esan zuen.

Lurralde bakoitzak benetako historia eta egungo historia ditu. Horixe dugu. Espazioetan, emozio, kultur eta gizarte harreman berriak sortzen ari dira.

Leku berri batera iristen garenean, aukera ugari dituen paisaia eszeniko gisa aztertzen dugu. Iristen garen lehen unetik, ahalik eta gutxien behartzen saiatzen gara, eta nolabaiteko bizigarritasun sententzia sortzen. Gauza txikiak zaintzen ditugu; hala nola, aukeratutako lekua mugatzeko materiala. Ikuskizun bakoitzean erabakitzen dugu zer elementu erabili espazio muga gisa, ikuskitzaren estetikaren arabera, publikoak pentsa ez dezan gunean sartzea debekatuta dagoela, konpainiak leku horretan jartzen duen guztia neurtuta eta zainduta dagoela iradokitzeke. Plaza batera iristea eta bertan gertatzen ari denetik urrun edozein modutan sartzea okerra da. Ez dira hesi horiak erabili behar, debekuaren seinale baitira, sartzea eta ukitzea debekatuta dagoen seinale... Bai, ordea, sormenari, publikoari eraso egiten ez dioten materialak aurkitzeko sormenari!

Lekua erabat aldatzea eta arte ekintza bihurtzea da gure aukera: ikuskizunean parte hartzen duten pertsona guztiak adierazpen kontzeptu batean sartuta daude (baita teknikariak eta errejidore aritzen direnak ere).

3 Zer publikori kontatu

Gaur egun, ez gara kaleetara irteten aretoetara joaten den publiko baten bila. Gune irekietara joaten gara, horrelako guneek soilik ematen baitute gizakien arteko topaketa eszenikoa eta sakona gertatzeko aukera.

Publiko idealaren profila? Asko eskatzea da, baina gezia jaurtitzeko itua da. Kontatzen uzten duen publikoa aurkitu nahi dugu, lasai daitekeen publikoa (arrazoiaren hesiaren gainetik jauzi eta sakonetik ulertu nahi duena). Publiko ausarta. Irekia. Aurreiritzirik gabea. Harritua izateko eta ezagutzen ez dituen hizkuntza berriei aurre egiteko prest dagoena. Arrazionaltasunez edo intelektualtasunez azaldu ezin diren emozioen edo sentsazioen lilurarekiko sentikorra. Publiko horren aurrean egoteko, konpainien ardura da, neurri batean, publiko hori sortzea. Horretarako, arte ekintza horrela bizitzeko aukera eskaini behar diegu. Kale antzerkiko egungo dramaturgietan, ikusleei beren denbora eteteko gonbita egingo dieten tresnak erabili behar ditugu, ikuskizunaz lasai-lasai gozatzeko desioa sortuko dietenak. (Argi dago hori ezin dela zenbait programaziotan egin; esaterako, zenbait jaialditan, ikuskizunak bata bestearen atzetik ematen dira, publikoa plazatik joan ez dadin, eta politikariek plaza bete-beteen argazkiak eta asistentziari buruzko datu handituak eman ditzaten.)

Publikoko pertsona bakoitzak une hori bizitzeko gaitasuna haren erantzukizuna da. Sortzailea naizen aldetik, estimulu hori edertasunez erakustea da nire erantzukizuna. Bakoitzak nahi edo ahal duen moduan egiten du... Arriskua eta abentura da, baina, publikoak hegan egitea nahi badut, beharrezko lekua sortzen saiatu behar dut, hegalak zabaltzeko lekua izan dezan.

Publiko hori hiri esparruan zein landa esparruan dago, normalean kaleetan ibiltzen den biztanleria immigrantean, kalean sarri ibiltzen den publikoan eta iristear dagoen publiko berrian.

Masa ikuskizunetan, ezin naiz publiko horretara iritsi, formatu ertaineko edo txikiko ikuskizunetan baizik. Ikuskizun ertainetan eta txikietan, harreman estua zaintzeko gai naiz, publikoari begietara begiratu eta haren denbora arnas dezaket.

4. Nola kontatu

Ez dago zauririk gabeko antzerkirik, ez oihurik, ez kontatzeko ipuinik.

Zauria bitzta irekia baino ez da, eta orbaintzen ari da, larruazala birsortzen, aldatzen, eraldatzen.

Publikoa garenean, batzuetan, oihukatutako zauriak blokeatu egiten gaitu, belarriak estaltzera behartzen gaitu, ikaratzen gaitu. Orduan, nola eraman behar dugu zauria kalera, publikoa odolaren eta azalaren beldurrik izan gabe, atarietan ezkutatu gabe?

Kalean, publikoak ez du sarreraren edo besaulkiaren loturarik, eta libre dira gu begiratzeari uzteko eta paseatzen edo berbetan jarraitzeko. Zer egin behar dugu? Zauria ez oihukatu? Irentsi egin behar dugu, publikoak gu begiratzeari uzteko beldurrez? Ikusizko eta soinuazko olerkiz apaindutako erritual paperez estali behar dugu, eta lauzetan bota?

Bai, poesia banderatzat hartu behar dugu! Ikusle bakoitzak irents dezakeen zatia har dezala, baina, zati hori aukeratzeko, bertan egon behar dute, lehen harmaila igo, konta diezaioten onartu. Hemen, edertasuna, emozioa eta konplizitatea sartzen da. Orduan, zauria hondarrera ateratzen da, oihua bizira irteten da eztarritik kanpora, poesia lauzazko erretilu batean zerbitzatuta dago.

Publikoak askatasun osoz entzun dezake zauria, hain zuzen zauriak sorrarazten duen oihua, babestu gabe, poesiatik.

Edertasuna (irudiak, teknika, materien manipulazioa, musika, kolorea, usaina) eta absurdoaren logika buruko diskurtsoa eteteko mekanismoak dira. Ikusleen pentsamendua etetea, ikuskizunaz lasai goza daitezen lortzea, eta gal daitezen eta kontrolatu gabeko gauzak gerta dakizkiekeen uztea, eta handik, hunkiberatasuna eta poesia jaurtitzea.

Poetikoki hitz eginda, ezinbestekoa da kalean giroa prestatzea, beharrezkoa da dena afari goxo bat balitz bezala prestatzea. Kalea afari berezia da, isiltasunez betea, argi gutxikoa, konfidentziak eta begirada isilak egitekoa. Bi alderdiek aldi berean arnastea eragiten duen topaketa bat da, eta horretan, gainera, denbora moteldu egiten da, ia gelditzeraino.

Poesiak, hartzaile gisa, entzuteko denbora eskatzen dizu, bai eta, besteak beste, kontzentrazioa, irudimena eta mundu subjektiboa ere. Poesiari esker, publikoa aktiboa eta bizia da, eta adieraziak eta adierazleak itzultzeko prozesuan sartzen da, eta egoera horretan, irekita dago, eta plataforma horretara irudiak, emozioak, usainak, sentrazioak eta soinuak jaurti ditzakezu, besteak beste. Haiak guztiak haren buru/bihotzaren Pandoraren kutxan sartuko dira, eta ezinbestean, harrapatuta izango dira.

Hona hemen gurekin beti doazen arrazoizko zalantzak: zer erritmo du poesiak gunere irekietan? Noraino tenka dezakegu arkuak?

Ondo dakigu publikoari dakarrenaz bestelako energia batean disolbatzeko eskatzen diogula. Eraldaketa prozesua gertatzen saiatzen gara, emoziozko alkimiako prozesua.

Obsesioa: erritua etengabe bilatzea... Dena da errituala edo zeremoniarako prestaketa. Denon artean ekintza ederra, hurbila eta gogoetatsua bizitzea: erritua.

Zein dira gure errituak, gure zentzu komunitarioa, zeren ondorioz transzenditzen dugu kolektiboki mende honetan? Ezin hartuzkoak zoratu egiten gaitu. Bake unea da publikoarentzat. Tarte labur batez, nork bere indibidualtasuna alde batera uzten du, eta harmonia kolektiboan gaude.

Ez dugu ezer asmatzen; berrasmatu egiten dugu, gure une historikoa eta herri jakituria kontuan harturik.

Ez dezatela txalorik egin, ez diezaiegun utz, zirrara barruan gorde dezatela, emoziozko isiltasun unea elkarrekin luzatzea onar dezatela!

Leku irekien intimitateak konkistatzen nau.

Txikitasunak konbentzitzen nau, zuzeneko begiradak, adeitasunezko kontaktuak, oinezkoaren masail zalantzatsua samurtasunez ukitzeak, oinezkoa zure eskuaren ahurrean abandonatzen denean.

Zeremoniak erakartzen nau, une galkorraren indarrak, naturaren konplizitateak, elkarrekin arratsaz edo ilunabarraz gozatzen dugula.

Haren arrisku humanistak liluratzen nau, beste gizakiaren larruzalaren beste aldera hitzik esan gabe zeharkatzeko adoreak. Komunikazio zintzoak eta errespetuaren magiak, une jakin batean jendetzaren artean sortzen den kode baten bidez elkarbanatutakoak. Norberaren baitan egoteko uneak, nork hainbat pertsonaren artean bere emozioak bizitzeko aukerak.

Leku publikoan denontzako leku bat sortzea interesatzen zait, ospatzaile komunitate bat sortzea.

Bai! Badakit publikoak ezezagunari egin behar diola aurre, arte eszeniko libre eta, itxuraz, anarkiko horren aurrean ez duela portaera erreferentziarik. Horixe da kale arteen gaur egungo arriskua, Mendebaldeko gure gizarte kapitalista horretan batere ohikoa ez dena. Non daude idatzita zirraren eta harriduraren aurrean nola jokatu jakiteko portaera irizpideak?

Komunikazioa komunio bihurtu nahi dut.

Kaleko publikoak ahalegina egiten du: hotzak edo beroak egoten da, zutik dago, edo eserita, baina deseroso. Ahalegina egiten du, eta artistak bere ahaleginarekin konpentsatzen du. Beraz, ikusgarritasuna ikusgarria ez denean, ikusleek indarra eskatzen dute, barrutik harrapatuko dituen zerbait.

Tresnak

Nire ustez, kale antzerkia aktoreen bidaia bat da, eta bidaia horretan, material manipulatu eta lekuak erabiltzen dira. Baina, ororen gainetik, kaleko protagonistak aktoreak dira, publikoarekin zuzen-zuzeneko harremana sortzen dutenak. Gogoz aritzen dira, ahitu egiten dira... prezio handia: beren burua gune irekietan erakustea (ikusle bakoitza den gizakia harri eta zur uzten du horrek).

Bizi triangelua: energia fisikoa, etengabe talde kontzentrazioari zuzendua; publikoarekiko komunikazioa; eta hunkiberatasun irekia. Gu egiten saiatzen garen kale antzerkia oso hurrekoa da. Egiten dena sakontasunez sentitu behar da, artisautza da, lan txikietan artearekin topo egitea da. Zintzotasunak soilik ematen dizu publikoarengana iristeko aukera: edo kontaktzen ari zarena itzelezko egia da, edo jendeak hauteman egiten du.

Amonaren errezeta gisa: askatasunarekiko maitasuna, anarkia apur bat, sen basatia atera nahia. Txanbil bateko ura tanta kontagailuz ateratzea bezalakoa (energia handia dosifikatzea da kaleko erronka handia).

Leku irekietan errituan zehar nabigatu nahi badugu, maitasuna, eta oinarrizko elementuei (gizakia, airea, sua, ura lurra eta isiltasuna) buruzko ezagutza eta errespetua.

Jantziak edo atrezzoak balira bezala kudeatu behar dira zoritxarrak, ezustekoen aurrean adi baina lasai egoten saiatuz, gorabeherak gorabehera sormenez kargatzen saiatuz.

6. Arrisku dosiak

Arriskuak hartzea mugak gainditzea bada, harritzea eta harrituta geratzea bada, iluntasunean irteera bila ibiltzea, ezagutzen ez dituzun lekuetan ikasi nahian sartzea, mundua beste ikuspegi batzuetatik ikustea, emaitzak ez bermatzea, harago joan nahi izatea edo intimitatera edo isiltasunera komunitatean gerturatzea, hori guztia arriskutsua bada, orduan bai, gure kale antzerkia ausarta da.

Artista legez, aurrekoa baino **arrisku** maila handiagoa nahi dugu beti. Kalean, arriskuak hartzeko moduak guneen erabileraren arabekoak dira, neurri handi batean. Horrek esan nahi du publikoak mugitu egin behar duela, bere kabuz edo guk gidatuta, eta are garrantzitsuagoa, ikuskizunak irauten duen denbora osoan egon behar duela.

Arriskuak hartzen dituzu, zenbait gai ukitzean eta ezagutzen edo guztiz ulertzen ez dituzun teknikak erabiltzean. Hor dago arriskua. Publikoa geratzea ala joatea: hori da kalearen erakarpen handia eta arrisku handia.

Zenbateraino tenkatu arkua?

7. Identitate femenino batetik sortzen

Kalea ez da inoiz izan emakumeen espazioa, eta ez dira sekula ere, hartan, emakumeen balioak nagusitu. Emakumeok leihoen atzetik ezkutatuta izan gara, munduari begiratzeko, hura asmatzen, imajinatzen, baina ez gara inoiz kalearen jabe izan. Lagunduta joan gara kalera, eta zerbait gertatuko ote zitzaigun beldurrez. Ez zen gure lurraldea. Hori da emakumeon gorputzak kaleaz duen oroimen fisikoa, gorputzak eta jarrerek. Kaleetan zehar bakarrik ibiltzea probokazioa eta arriskua zen. Kaleko emakumeek beren gorputza saltzen zuten, eta produktuak bailiran erosten zituzten. Emakumeentzat ezarrita zegoenetik kanpo zeuden. Kultura androzentrikoak eratutako femeninitasuna ez zen parametro horretan sartzen. Kalea ez da gure errealizazio gunea izan, kalea gizonena izan da, eta identitate maskulinoa eta gizonen balioak nagusitu dira: indarra, lehia, publikotasuna, besteen gaineko boterea.

Beste leiho bat irekitzen ari da kale antzerkiaren eraikinean. Antzerki likidoa, antzerki biribila, beste sentikortasun batekin, antzerki heroikoaz, burdinazko antzerkiak eta indarrezko antzerkiak (multimedia antzerkia, makinak eta danbatekoak) bestelakoa.

Kalea libertarioa da, eta emakumeok esparru publikoan, kanpoko lekuetan, dugun askatasuna oso berria da. Ez dugu esparru horretan oroimenik; sortzen eta aurkitzen ari gara.

Beste ikuspegi batetik sortzen.

8. Utopia apur handi samarra, proiektu berriei heltzeko. Amildegia oso sakona da, eta batzuetan, abiadura hartzeko balio du, sarerik gabeko jauzi hori egiteko.

1998: Alkimia 130 tributeatroren 1. manifestua - "Oihuak eta xuxurlak sarerik gabeko antzerki baten alde"

... 2008: sarerik gabeko antzerki batean nabigatzen jarraitzen dugu

Laburpen gisa

Bost uste sendo eta arrazoizko zalantza bat ondorioztatu ditut:

1. uste osoa: Badakigu kale antzerkiaren zati txiki batez ari garela, baina hura aukeratu dugu.
2. uste osoa: Etengabe egiten dugu aurrera, isilean... ("Astiro, baina badator", Mario Benedetti)

3. uste osoa: Oihua dut eztarrian oraindik ere. Oihua nigan dago oraindik.
4. uste osoa: Elkarrekin isilduz oihu egiteko gonbita egiten jarraitzen dugu.
5. uste osoa: Bidean aurrera jarraitzen dut, zorroan sortzen eta arriskuak hartzen jarraitzera bultzatzen nauen galdera bat dudala.

1. arrazoizko zalantza: Zenbateraino tenkatu behar da arkua, lekurik ireki eta doakoenean geldiro-geldiro komunikatu nahian?

Palentzian, 2008. denborako azaroko goiz hotz eta garbi batean, Lur planetan.

P.D.: Eskerrak ematen dizkiet Invex, Archi, Amparo eta Patxiri, idatzi hau irakurtzen eta zuzentzen laguntzeagatik eta aholkuak emateagatik. Eta alkimiatik eta kaleetatik nabigatzen duten eta nabigatu zuten gizakiei, haien zereginetik egunero ikasten dudalako eta zenbait ondorio ateratzera ausartzen naizelako.

MERCEDES HERRERO PEREZ

Alkimia 130 teatroabierto taldeko Zuzendari artistikoa

La Tenazada .

Alkimia 130 konpainia sortu zen, 2007ko neguko Los Carochos errituaren gainean (Riofrío de Aliste – Zamora).

Konpainiak egindako esku-hartzea, komunitateko jendearekin batera, hilabeteko egonaldian.

Aktore prestakuntzatik abiatuta, Mercedes Herrero Pérez eszenako zuzendaritzan murgildu zen antzerki eskola amaitu zuenean (1996) eta gizarte eta hezkuntza arloko beste erakunde batzuetako jendearekin batera taldea osatu zuen; konpainia edo tribua (ez dakigu ondo nola deitu). Horrela, salaketa bitalista egiteko lekutzat hartzen dute kalea; performance inprobisatutik konpainiaren ildo definitzera heldu ziren: “Kalea eta ohikoak ez diren espazioak, sorkuntzarako espazio bezala”. Arteak, herriko kultura eta lengoia garaikidea nahastu zituzten.

Antzerki fisikoa bilatzen du, begiak eta azala dituen antzerkia, errituarekin obsesionatuta dago, XXI. mendeko katarsi kolektiboa, isiltasunaren magiak eta ikusleen hurbiltasunak eragindakoa, gauza txikiekiko maitasuna, aktoreekin zuzeneko lana.

Bere betiko helburua, bere lanaren ezaugarria gizatasunarekin lotutako gaietara bideratuta dago.

Zuzendari izan den hamahiru urteotan bere konpainiari leial izan zaio eta kalitatean eta komunikazio txikian oinarritutako etika artistikoa hartu du oinarritzat.

Palentzia...landa-lurren herria, 2008